

Pisuzko arrazoia

Marikalanbre eta Martin haserre datoz.

–Zer duzue, muturra okertuta etortzeko? –galdetu die Amona Txinpartak.

–Galderari oker erantzun diogula esan digu irakasleak, baina bera da oker dagoena –bota du Martinek, gogor.

–Gainera, ez digu azalpenik eman –gehitu du Marikalanbrek–. Bihar esplikatuko omen digu, baina ezingo du, ez baita egja!



Airea bezain arina... edo astuna

Badu pireak aireak? Ziur zaude?

Materiala

Pertxa bat
Bi puxika
Haria
Orratz bat

Zer egin?

Puztu bi puxikak, biak tamaina berekoak izan arte. Egin korapiloa. Lotu puxikak pertxaren alde banatara, hariaren bidez. Egiatzatu pertxa zuzen dagoela. Lehertu puxiketako bat orratzarekin. Begiratu pertxari.

Zer gertatu da?

Pertxa puztutako puxikaren aldera makurtzen da. Horren arrazoia garbia da: aireak pisatu egiten du; horregatik makurtzen da pertxa airez betetako puxikaren aldera.



–Zer ez da egia? –jakin nahi izan du amonak.

–Aireak pisua duela. Argi dago ez duela pisurik! –erantzun diote biek batera.

–Ziur? –galdetu die amonak. Egin dezagun proba! –gelara joan, eta berehala etorri da, bi puxikarekin eta pertxa batekin.

–Ea, tori puxika bana, eta puztu, biak neurri berekoak geratu arte –agindu die.

Puztu ondoren, korapiloa egin, eta pertxaren alde banatan zintzilikatu ditu.

–Zuzen dago pertxa? –galdetu die amonak.

Buruarekin, baiezkoa egin dute. Orduan, amonak orratz bat hartu eta eskuineko puxika lehertu du.

–Eta orain?

Pertxa ezkerraldera makurtu da! Marikalanbrek eta Martinek elkarri begiratu diote: irakasleak arrazoia zuen; aireak pisatu egiten du, eta horregatik okertzen da pertxa puztuta dagoen puxikaren aldera.

